Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5151

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: «Agindua, 2010eko ekainaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2010eko udan eta 2010-2011 ikasturtean Irale programaren barnean Sailaz kanpoko eragileez bideratuko diren ekintzetan parte hartzeko deialdia argitaratzen duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Modu horretako hutsak atzeman dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Aginduan, zeinen bidez argitaratzen baita 2010eko udan eta 2010-2011 ikasturtean Irale programaren barnean Sailaz kanpoko eragileez bideratuko diren ekintzetan parte hartzeko deialdia (2009ko ekainaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 123. zk.). Horregatik, dagokion zuzenketa egin behar da.

2010/3186 (6/20) orrialdean, 10.1 artikuluaren e) idatz-zatian,

Honako hau dioenean:

«Soziolinguistikaren inguruko ikastaroak (H410), prestakuntzak, emankizunak, ariketen zuzenketak eta Irale programak zehazturiko ebaluazio osagarriek sortutako gehigarrizko lanak barne: 90 euro orduko eta taldeko. Gutxienez 8 eta gehienez 20 ikasketariko taldeak izango dira».

Honela esan behar du:

«Soziolinguistikaren inguruko ikastaroak, prestakuntzak, emankizunak, ariketen zuzenketak eta Irale programak zehazturiko ebaluazio osagarriek sortutako gehigarrizko lanak barne: 90 euro orduko eta taldeko. Gutxienez 8 eta gehienez 20 ikasketariko taldeak izango dira».

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

5151

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Orden de 15 de junio de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se hace pública la convocatoria para participar en el desarrollo de las actividades del programa Irale no ejecutadas directamente por este Departamento, que se celebrarán durante el verano de 2010 y el curso escolar 2010-2011.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Orden de 15 de junio de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se hace pública la convocatoria para participar en el desarrollo de las actividades del programa Irale no ejecutadas directamente por este Departamento, que se celebrarán durante el verano de 2010 y el curso escolar 2010-2011, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 123, de 29 de junio de 2010, se procede a su corrección.

En la página 2010/3186 (6/20), artículo 10.1, apartado e),

Donde dice:

«Actividades formativas de carácter sociolingüístico (H410), incluyendo labores complementarias de preparación, aplicación y corrección de ejercicios, así como sujeción a criterios suplementarios de evaluación a través del programa Irale: el costo máximo será de 90 euros por grupo y hora. El grupo tendrá un mínimo de 8 y un máximo de 20 cursillistas».

Debe decir:

«Actividades formativas de carácter sociolingüístico, incluyendo labores complementarias de preparación, aplicación y corrección de ejercicios, así como sujeción a criterios suplementarios de evaluación a través del programa Irale: el costo máximo será de 90 euros por grupo y hora. El grupo tendrá un mínimo de 8 y un máximo de 20 cursillistas».